



## PRENTSA OHARRA

### **Agurainek 10.000 euro zuzenduko ditu hirigune historikoan hutsik dauden lokaletan jarduera ekonomikoak sustatzeko**

Hutsik dauden lokalen % 50 alokatzeko laguntza-deialdi bat onartu berri du.

2024/09/24 Agurain. Udalerriko jarduera ekonomikoa sustatzeko eta Aguraingo hirigune historikoan hutsik dauden lokalak okupatzen laguntzeko, Udalak laguntza-deialdi bat onartu du. Laguntza horrek lokalaren alokairua ordaintzen den 12 hilekoen % 50 hartuko du, gehienez hilean 300 euro. Horretarako, Aguraingo Udalak 10.000 euro erreserbatu ditu, baina partida handitu ahal izango da, beharrezkoa izanez gero.

Eskabideak urriaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira Aguraingo Udalean, eta bateragarria da beste laguntza mota batzuekin. Dirulaguntza hau jaso ahal izango dute jarduera ekonomiko berri guztiek, baldin eta gutxienez urtebeteko errenta-kontratua badute eta bide publikotik sarbide zuzena badute. Kanpoan geratzen dira, besteak beste, ostalaritza, vending-ak, merkataritza-gune handiak, banku eta kutzak, apustu-etxeak edo tabakoaren edo erregaien salmentarekin lotutako jarduerak.

Udalerrian beste establezimenduren bat dutenek laguntza hauek jaso ahal izango dituzte, baldin eta establezimendua egungo kokalekuan ixten ez badute. Gutxienez urtebete egon beharko dute irekita; bestela, laguntzak itzuli beharko dituzte.

Raul Lopez de Uralde Aguraingo alkateak azpimarratu du herriko alde zaharra garatzea eta dinamizatzea lehentasun bat dela. Horretarako, komertzioa biziberritzeko plan berezi bat onartu zen, hartu den bezalako neurriak jasotzen dituena.

---

## NOTA DE PRENSA

---

### **Agurain destinará 10.000 euros a la promoción de actividades económicas en locales vacíos del casco histórico**

Ha aprobado una convocatoria de ayudas para asumir hasta el 50% del alquiler de locales vacíos.

2024/09/24 Agurain. Con el objetivo de promover la actividad económica del municipio y favorecer la ocupación de locales vacíos en el casco histórico de Agurain, el Ayuntamiento ha aprobado una convocatoria de ayudas. La citada ayuda abarcará hasta un máximo del 50% de las 12 mensualidades del pago del alquiler del local con un máximo de 300 euros al mes. Para tal fin, el Ayuntamiento de Agurain ha reservado 10.000 euros, pero la partida podrá ser ampliada si fuera necesario.

Las solicitudes se podrán presentar hasta el 31 de octubre en el Ayuntamiento de Agurain y es compatible con otro tipo de ayudas. Se podrán acoger a esta subvención todas las nuevas actividades económicas que cuenten con un contrato de arrendamiento como mínimo de un año y con acceso directo desde la vía pública. Quedan excluidas, entre otras, las actividades relacionadas con la hostelería, los vendings, las grandes superficies comerciales, bancos y cajas, las casas de apuestas o la venta de tabaco o combustibles.

Quienes ya cuenten con otro establecimiento en el municipio, podrán acceder a estas ayudas siempre y cuando no cierren el establecimiento en su actual ubicación. Deberán permanecer abiertos, al menos un año; de lo contrario, deberán proceder al reintegro de las ayudas.

El alcalde de Agurain, Raúl López de Uralde, ha destacado que desarrollar y dinamizar el casco histórico de la localidad es una de las prioridades. Para tal fin, se aprobó un plan especial de revitalización del comercial que recoge medidas de estas características.